


SAMSUNG

# GT-S5230

## Erabiltzailearen eskuliburua

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

Baliteke eskuliburu honen edukia zure telefonoarekin erabat bat ez etortzea, telefonoaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

SAMSUNG ELECTRONICS

World Wide Web
http://www.samsungmobile.com

Printed in Korea
Code No.: GH68-22888A
Spanish. 04/2009. Rev. 1.0




S5230

# Erabiltzailearen eskuliburua

SAMSUNG

# Nola erabili eskuliburu hau

Zure telefonoaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau.

Azkar hasteko, ikus “Telefono mugikorraren sarrera” “Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea” eta “Oinarrizko funtzioen erabilera”.



## Jarraibideen ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:

OHARTARAZPENA **Ohartarazpena:** zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

KONTUZ **Kontuz:** situaciones que pueden ocasionar daños a su teléfono o a otros equipos

**Oharra:** oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.

▶ **Ikus:** lotutako informazioa duten orriak; esaterako: ▶12. or. (hauxe esan nahi du: “ikus 12. orrialdea”).

→ **Ondoren:** ekintza bat egiteko jarraitu behar duzun aukeren edo menuen ordena, adibidez: menuen moduan, hautatu **Messaggi** → **Create Message** (esan nahi du: **Messaggi**, eta, gero, **Create Message**)

[ ] **Kortxeteak:** telefonoaren teklak; adibidez: [ ] (pizteko eta menuetatik irteteko tekla)

## Copyright-aren informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira.

- Bluetooth SIg, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan. Bluetooth QD ID: B015178.
- Java™ Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala da.
- Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratua da Windows Media Player®.

CE0168

# Edukia


## Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa ........ 1

Segurtasunari buruzko oharrak ........ 1

Segurtasun-neurriak ........ 3

Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua ........ 6

## Telefono mugikorraren sarrera ........ 11

Bilgarria kentzea ........ 11

Telefonoaren diseinua ........ 12

Teklak ........ 13

Pantaila ........ 14

Ikonoak ........ 14

## Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea ........ 16

SIM txartela eta bateria jartzea ........ 16

Bateria kargatzea ........ 18

Memoria-txartela sartzea *(hautazkoa)* ........ 19

Oinarrizko funtzioen erabilera ......................... 20

Telefonoa piztea eta itzaltzea ......................... 20
Ukipen-pantaila erabiltzea ......................... 21
Menuetara sartzea ......................... 22
Widget-ak erabiltzea ......................... 22
Laguntza-informaziora sartzea ......................... 23
Telefonoa pertsonalizatzea ......................... 23
Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea ......................... 25
Mezuak jasotzea eta bistaratzea ......................... 27
Kontaktuak gehitzea eta bilatzea ......................... 31
Kameraren oinarrizko funtzioak erabiltzea ......................... 32
Musika erreproduzitzea ......................... 34
Web-ean nabigatzea ......................... 36

Funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 38

Deien funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 38
Agendaren funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 41
Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 42
Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 44
Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea ......................... 48

## Tresnak eta aplikazioak erabiltzea .............. 52

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea .................52
Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea ..............54
Mugikor-bilatzailea aktibatzea ..........................................55
Gezurrezko deiak egitea .....................................................56
Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea ..............57
Irudiak editatzea.....................................................................58
Irudiak inprimatzea.................................................................60
Web-era argazkiak eta bideoak kargatzea.......................61
Java-rako aplikazioak eta jokoak erabiltzea.....................63
Datuak sinkronizatzea ..........................................................64
RSS irakurgailua erabiltzea .................................................64
Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea.......................65
Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea...............................66
Kalkulagailua erabiltzea.......................................................67
Dibisak edo neurriak aldatzea.............................................67
Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea.68
Kronometroa erabiltzea.......................................................68
Zeregin berria sortzea...........................................................68
Testu-ohar bat sortzea .........................................................68
Egutegia antolatzea .............................................................69

## Arazoen konponketa ........................................... a

## Aurkibidea .............................................................. d

# Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Kontuan eduki ohar hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta telefono mugikorraren errendimendua hobea izan dadin bermatzeko.

KONTUZ

## Segurtasunari buruzko oharrak

### Ez utzi telefonoa haurren eta etxeko animalien eskueran.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskueran. Irentsiz gero, zati txikiek zauri larriak eragin edo haurrak ito ditzakete.

### Babestu entzumena

Entzungailuan bolumen altuan erabiltzeak entzumena kaltetu dezake. Erabili elkarrizketa edo musika entzuteko beharrezkoa den bolumenaren konfiguraziorik txikiena.

## Kontuz instalatu telefono mugikorrak eta gainerako tresnak

Egiaztatu telefono mugikorrak edo haiei lotutako ekipoak modu seguruan instalatuta dituzula zure ibilgailuan. Ez jarri telefonoa eta osagarriak airbagak dauden eremutik hurbil. Haririk gabeko tresnak behar bezala instalatzen ez badira, zauri larriak eragin daitezke airbag-ak azkar irekitzean.

## Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta zure telefonorako bereziki diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkieke zure telefonoari.
- Inoiz ez bota bateriak sutara. Erabilitako bateriak botatzean, bete tokiko arau guztiak.
- Ez jarri bateriak edo telefonoak berotzen diren gailuen barruan edo gainean (adibidez, mikro-uhin labeak, berogailuak edo erradiadoreak). Bero gehiegi jasoz gero, bateriak lehertu egin daitezke.
- Inoiz ez jo edo zulatu bateria. Ez jarri bateria kanpoko presio handia jasan behar duen lekuan. Barneko zirkuitulabur bat sortu eta gehiegi berotu dezake.

## Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko distantzia telefono mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz. Zure telefonoak taupada-markagailu batean edo beste gailu medikoren batean interferentziak eragiten dituela uste baduzu, itzali telefonoa berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo gailu medikoaren fabrikatzailearekin, aholkularitza jasotzeko.

KONTUZ

## Itzali telefonoa leherketan egon daitezkeen inguruetan bazaude

Ez erabili telefonoa gasolina hartzeko lekuetan (gasolindegietan) edo erregaietatik edo produktu kimikoetatik hurbil. Itzali telefonoa hori egiteko adierazten duten seinaleak edo jarraibideak ikusten dituzun aldiro. Zure telefonoak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaia edo produktu kimikoak biltegiratzeko eremuetatik hurbil, aldatzeko eremuetan edo detonagailuetan. Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik, telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

## Murriztu mugimenduan mugikorra kaltetzeko arriskua

Zure telefonoa erabiltzean, eutsi gailua eskua erlaxatuta duzula, teklak arin sakatu, sakatu beharreko tekla-kopurua murrizteko funtzio bereziak erabili (txantiloiak eta testu prediktiboa, adibidez), eta atseden hartu behar bestetan.

KONTUZ

# Segurtasun-neurriak

## Arretaz gidatu beti

Ez erabili telefonoa gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean mugikorraren erabilpena murrizten duten arau guztiak. Baimenduta badago, erabili esku libreko osagarriak segurtasuna hobetzeko.

## Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrak erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

## Samsung-ek onartutako osagarriak soilik erabili

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure telefonoa kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke.

## Itzali telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Zure telefonoak interferentziak eragin ditzake ospitaleetako edo osasuna zaintzeko instalazioetako ekipo medikoetan. Bete pertsonal medikoaren oharrak eta argibideak adierazten dituzten seinaleak.

## Itzali telefonoa edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Zure telefonoak interferentziak eragin ditzake hegazkineko ekipoetan. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

## Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak tenperatura oso altu edo oso baxuetan (0 °C/32 °F-tik behera edo 45 °C/113 °C-tik gora). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

KONTUZ

## Kontuz eta arretaz erabili telefonoa

- Ez busti telefonoa: likidoek kalte larriak eragin ditzakete. Ez ukitu telefonoa eskuak bustita dituzula. Urarekin kontaktuan egoteagatik telefonoa hondatzen bada, baliteke fabrikatzailearen garantia bertan behera gelditzea.
- Ez erabili edo biltegiratu telefonoa hautsa eta zikintasuna dagoen lekuetan, zati mugikorretan kalterik egon ez dadin.
- Zure telefonoa gailu elektroniko konplexua da; babestu kolpeetatik eta erabilera zabarretik kalte larririk izan ez dezan.
- Ez margotu telefonoa; pinturak zati mugikorrak blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatuko.
- Telefonoak flasha edo argia badu, ez erabili pertsonen eta animalien begietatik gertu.
- Eremu magnetikoetatik hurbil, telefonoa kaltetu egin daiteke.Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi telefonoa eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

## Saihestu beste gailu elektronikoekin interferentziak izatea

Telefonoak irrati-maiztasunaren seinaleak igortzen ditu, eta horiek interferentziak sor ditzakete babestu gabe edo gaizki babestuta dauden ekipamendu elektronikoetan, hala nola taupada markagailuetan, audifonoetan, gailu medikoetan eta etxeko edo ibilgailuko beste gailu elektroniko batzuetan. Jarri harremanetan gailu elektronikoen fabrikatzaileekin sortzen zaizkizun interferentzia-arazoak konpontzeko.

KONTUZ

## Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

### Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada

Saiatu telefonoaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

### Langile adituei soilik utzi telefonoa konpontzen

Adituak ez diren langileek telefonoa konpontzen badute, baliteke telefonoa kaltetzea eta bermea bertan behera gelditzea.

### Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetez baino gehiagoz; gainkargak bateriaren bizitza erabilgarria murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabiltzen ez diren bateriak deskargatu egingo dira, eta erabili aurretik berriro kargatu beharko dira.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik.

### Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu telefonoko txartela informazioa lekualdatzen edo erabiltzen ari dela; hori eginez gero, datuak galdu eta txartela edo telefonoa kaltetu daitezke.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako perturbazioetatik.
- Datuak maiz idazten eta ezabatzen badira, memoria-txartelaren iraupena murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

## Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait eremu edo egoeratan zure telefonotik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko edo garatu gabeko lekuetara bidaian joan aurretik, prestatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko beste metodoren bat.

## Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiriari buruzko informazioa

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) estandarrak betetzen ditu telefonoak. Estandar horiek gehieneko esposizio-maila (absortzio espezifikoaren tasa edo SAR deitua) hau da, giza ehunaren kg bakoitzeko 2,0 watt gainditzen duten telefono mugikorren salmenta saihesten dute.

Probak egitean, modelo honetarako erregistratu zen gehienezko SAR maila kilogramoko 0,531 watt-ekoa izan zen.

Erabilera normalarekin baliteke SAR maila baxuagoa izatea, hurbileneko estaziora seinalea igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatuta baitago telefonoa. Automatikoki ahalik eta mailarik baxuenak igortzen dituenez, telefonoak irrati-frekuentziako energiarako esposizioa murrizten du.

Eskuliburu honen amaieran agertzen den adostasun-deklarazioak frogatzen du telefonoak betetzen duela irrati- eta telekomunikazio-ekipoen Europako direktiba. SAR-i eta Europako Batasuneko estandarrei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung telefono mugikorren web gunea.

## Produktu hau behar bezala botatzea

(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europako Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan) Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktuaren edo haren osagarri elektronikoen (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) bizitza baliagarria amaitzean ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da.

Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko.

Enpresa-erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

## Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



*(Europako Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan).*

Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera. Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoek esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzat jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete. Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

## Oharra: erantzukizunik eza

Gailu honen bidez erabil ditzakezun zenbait eduki edo zerbitzu beste enpresa batzuenak dira, eta copyright-en, patenteen, marka erregistratuen edo jabetza intelektualeko beste zenbait legeren babespean daude. Eduki eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik hornitzen dira, ez enpresetan erabiltzeko. Debekatuta dago edukiak edo zerbitzuak erabiltzea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduren batean. Arestian aipatutakoa alde batera utzi gabe, eta edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak espresuki emandako baimenik ez badu, debekatuta dago gailu honen bidez erakusten diren edukiak eta zerbitzuak aldatzea, kopiatzea, berrargitaratzea, kargatzea, erakustea, transmititzea, itzultzea, saltzea, horretan oinarritutako lanak sortzeko erabiltzea, ustiatzea edo edozein modutan banatzea.

"HIRUGARRENEN EDUKIAK ETA ZERBITZUAK DAUDEN BEZALA EMAN DITU SAMSUNG-EK, ETA EZ DU EMANDAKO ZERBITZUEN BERMERIK EMATEN, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI. SAMSUNG-EK BERARIAZ BAZTERTZEN DU EDOZEIN BERME INPLIZITU, BAI ETA MERKATURATZEKO BERMEA EDO HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUN-BERMEA ERE. SAMSUNG-EK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN ZEHAZTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, AZKARTASUNIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA INOIZ IZANGO, EZ KONTRATU BIDEZ EZ KONTRATUZ KANPOKO ARDURAPEAN (EZ ETA ZABARKERIAGATIK GERTATZEN DENEAN ERE), KALTE ZUZENEN, ZEHARKAKOEN, BEREZIEN, ISTRIPUEN ONDORIOZKOEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO HEMEN AGERTZEN DEN INFORMAZIOAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN EDO HONEKIN LOTUTAKOEN ARDURADUN. BESTALDE, EZ DA IZANGO ZURE EDO HIRUGARREN BATEN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN ARDURADUN, EZ ETA KALTE HORI GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI BAZEN ERE.

Hirugarrenen zerbitzuak edozein unetan amaitu edo eten daitezke, eta Samsungek ez du adierazten edukiak edo zerbitzuak denbora-tarte batean erabilgarri egongo direnik, eta ez du horretarako bermerik ematen. Edukiak eta zerbitzuak transmisio-sareen eta -instalazioen bidez helarazten zaizkie hirugarrenei, eta Samsungek ez du kontrolik horietan. Erantzukizun ezaren ohar honen kontzeptu orokorrak mugatu gabe, Samsung-ek berariaz uko egiten dio gailu honen bidez erabil daitekeen edozein eduki edo zerbitzu eteteari edo amaitzeari.

Edukiei eta zerbitzuei lotutako bezeroarentzako arreta-zerbitzuari dagokionez, Samsung-ek ez du horren ardurarik. Edukiei edo zerbitzuei lotutako zerbitzuari buruzko edozein zalantza edo eskaera izanez gero, zuzenean hornitzailearengana jo behar da.

# Telefono mugikorraren sarrera

Atal honetan, telefonoaren diseinuari, teklei, pantailari eta ikonoei buruzko informazioa ematen da.

## Bilgarria kentzea

Egiaztatu elementu hauek kaxan dauden:

- Telefono mugikorra
- Bateria
- Bidaiarako egokigailua (kargagailua)
- Erabiltzailearen eskuliburua

Telefonoak dakartzan elementuak desberdinak izan daitezke softwarearen arabera, eta zure herrialdean eskuragarri dauden edo zerbitzu-hornitzaileak eskaintzen dituen osagarrien arabera. Hainbat osagarri eskura ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.

# Telefonoaren diseinua

Telefonoaren aurrealdean tekla eta funtzio hauek daude:




Telefonoaren aurrealdean tekla eta funtzio hauek daude:




Telefonoarekin nahi egin nahi ez dituzun eragiketarik ez egiteko, ukitzeko pantaila eta teklak blokea ditzakezu. Blokeatzeko,sakatu blokeatzeko/ desblokeatzeko tekla.

## Teklak

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Markaketarako tekla | Dei bati erantzuteko edo dei bat egiteko balio du. Modu inaktiboan, markatutako, galdutako edo jasotako azken deien zenbakiak bistaratzen ditu. |
| Atzera egiteko tekla | Menuen moduan, aurreko mailara itzultzeko balio du. |
| Pizteko/ menuetatik irteteko tekla | Telefonoa pizteko edo itzaltzeko (luze sakatuta) edo deiak amaitzeko balio du; menuen moduan, hasierako menu-pantailara edo modu inaktibora itzultzeko balio du. |
| Bolumen-tekla | Telefonoaren bolumena doitzeko balio du |
| Blokeatzeko tekla | Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzeko edo desblokeatzeko balio du. |
| Kamera | Modu inaktiboan, kamera pizteko balio du; kameraren moduan, argazki bat edo bideo bat ateratzeko. |

## Pantaila

Telefonoaren pantailak eremu hauek ditu:




**Ikono-lerroa**

Hainbat ikono bistaratzen ditu

**Testuen eta grafikoen gunea**

Sartutako mezuak, jarraibideak eta informazioa bistaratzen ditu

## Ikonoak

Pantailan agertzen diren ikonoei buruzko informazioa.

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
|  | Seinalearen intentsitatea |
|  | GPRS sarea konektatuta |
|  | GPRS saretik datuak transferitzen |
|  | EDGE sarea konektatuta |
|  | EDGE saretik datuak transferitzen |
|  | Ahots-deia abian da |
|  | Memoria-txartela jarrita |
|  | Alarma aktibatuta |

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Web-ean nabigatzea |
| | Web gune seguru batera konektatuta |
| | Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo) |
| | Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | Bluetooth entzungailuak edo autorako esku libreko Bluetooth kita konektatuta |
| | PCarekin sinkronizatua |
| | Testu-mezu berria (SMS) |
| | Multimedia-mezu berria (MMS) |
| | Mezu elektroniko berria |

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Ahots-mezu berria |
| | Profil normala aktibatuta |
| | Isilik profila aktibatuta |
| | Bateriaren karga-maila |
| 10:00 | Uneko ordua |

# Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea

Hasteko, instalatu eta konfiguratu zure telefono mugikorra, eta erabili lehen aldiz.

## SIM txartela eta bateria sartzea

Zerbitzu mugikor batean izena ematean, abonatuaren identifikazio-zenbakia edo SIM txartela jasoko duzu; han daude izen-ematearen datu guztiak, hala nola identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) eta aukerako zerbitzuak.

SIM txartela eta bateria sartzeko:

1. Kendu bateriaren tapa.




Telefonoa piztuta badago, itzali [ ] tekla luze sakatuta.

2. Sartu SIM txartela.



- Jarri SIM txartela telefonoan, urre koloreko kontaktuak behera begira direla.
- SIM txartela sartzen ez baduzu, telefonoaren saretik kanpoko zerbitzuak eta zenbait menu erabil ditzakezu.

3. Sartu bateria.




4. Jarri berriro bateriaren estalkia.



## Bateria kargatzea

Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

1. Ireki telefonoaren alboko funtzio ugariko hartunearen estalkia.
2. Konektatu bidaiarako kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hartunera.



Triangelua gora begira duela

KONTUZ

Bidaiarako egokigailua gaizki konektatuz gero, telefonoari kalte larriak eragin diezazkiokezu. Produktua gaizki erabiltzeagatik sortutako kalteak ez dira sartzen bermean.

3. Konektatu bidaiarako egokigailuaren mutur handia korronte-hartunera.
4. Bateria osorik kargatuta dagoenean ( ikonoa mugitzen ez denean), deskonektatu bidaiarako egokigailua elikadura-iturritik.
5. Deskonektatu telefonoaren bidaiarako egokigailua.
6. Itxi funtzio ugariko hartunearen estalkia.

**Bateria baxuaren adierazleari buruz**

Bateria-maila baxua denean, telefonoan ohartarazteko soinu bat egingo du, eta bateria baxu dagoela adierazten duen mezu bat bistaratuko da. Gainera, bateriaren ikonoa hutsik eta keinuka agertuko da. Bateria-maila telefonoak funtzionatzeko baxuegia bada, itzali egingo da automatikoki. Kargatu bateria eta jarraitu telefonoa erabiltzen.

## Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)

Multimedia-fitxategi gehiago biltegiratzeko, memoria-txartela sartu behar duzu. 8 GB arteko microSD® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).

1. Kendu bateriaren estalkia eta bateria.
2. Sartu memoria-txartel bat, etiketa behera begira duela.



3. Sartu memoria-txartela zirrikituen, bere lekuan gelditu arte.
4. Ipini bateria eta jarri berriro bateriaren estalkia.

Memoria-txartela kentzeko, kendu bateriaren estalkia, atera bateria, eta, gero, atera memoria-txartela zirrikitutik.

# Oinarrizko funtzioen erabilera

Jakin ezazu oinarrizko eragiketak nola egin eta telefono mugikorraren oinarrizko ezaugarriak nola erabili.



## Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko:

1. Luze sakatu [ ] tekla
2. Idatzi zure PIN zenbakia eta sakatu **Confirmar** (beharrezkoa bada).

Telefonoa itzaltzeko, egin 1. urratseko gauza bera.

## Konexiorik gabeko profilera aldatzea

Konexiorik gabeko profilera aldatzean, saretik kanpoko zerbitzuak erabil ditzakezu haririk gabeko gailuak debekatuta dauden lekuetan; adibidez, hegazkinetan edo ospitaleetan.

Konexiorik gabeko profilera aldatzeko, hautatu **Ajustes** → **Perfiles del teléfono** → **Fuera de línea**.

Bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan zaudenean.

# Ukipen-pantaila erabiltzea

Telefonoaren ukipen-pantailan hauek egin ditzakezu:

Eskuratu ukipen-pantailaren erabilpenerako oinarrizko ekintzei buruzko informazioa.

Ukipen-pantaila ahalik eta ondoen erabiltzeko, kendu pantailaren geruza babeslea telefonoa erabili aurretik.

- Hautatu ikono bat menu bat irekitzeko edo aplikazio bat hasteko.




- Eraman behatza gora edo behera zerrenda bertikaletan mugitzeko.



- Mugitu behatza ezkerrera edo eskuinera zerrenda horizontaletan mugitzeko.



## Menuetara sartzea

Telefonoaren menuetara sartzeko:

1. Modu inaktiboan, hautatu **Menú** menuen modura sartzeko.
2. Hautatu menu edo aukera bat.
3. Sakatu Atzera egiteko tekla maila bat igotzeko; sakatu [ ] bi aldiz modu inaktibora itzultzeko.

## Widget-ak erabiltzea

Ikas ezazu tresna-barrako widget-ak erabiltzen.

- Widget batzuekin, web-zerbitzuetara konekta zaitezke. Web-eko widget bat hautatuz gero, baliteke kargu gehigarriak jasotzea.
- Eskuragarri dauden jokoak aldatu egin daitezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Widget-en tresna-barra irekitzea

Modu inaktiboan, hautatu pantailaren behealdean ezkerrean dagoen gezia, widget-en tresna-barra irekitzeko. Tresna-barrako widget-ak banatu edo pantaila inaktibora mugitu ditzakezu.

### Widget-ak gehitzea pantaila inaktiboari

1. Ireki widget-en tresna-barra.
2. Arrastatu widget-en tresna-barrako widget bat pantaila inaktibora. Pantailaren edozein lekutan jar dezakezu widget-a.

### Widget-ak aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ajustes** → **Pantalla e iluminación** → **Widget**.
2. Hautatu widget-en tresna-barrari gehitu nahi dizkiozun widget-ak, eta hautatu **Guardar**.

## Laguntza-informaziora sartzea

Ikas ezazu telefonoari buruzko informazio erabilgarrira sartzen.

1. Ireki widget-en tresna-barra.
2. Hautatu [?] widget-en tresna-barran.
3. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
4. Hautatu laguntza-gai bat, aplikazio edo funtzio bati buruzko informazioa eskuratzeko.
5. Joan ezkerrera edo eskuinera informazio gehiago eskuratzeko. Aurreko mailara itzultzeko, hautatu [↰].

## Telefonoa pertsonalizatzea

Aprobetxatu gehiago zure telefonoa, gustatzen zaizun moduan pertsonalizatuta.

### Teklen tonuen bolumena doitzea

Modu inaktiboan, sakatu [▲ / ▼], eta doitu teklatuko tonuen bolumena.

## Ukipen-pantailaren bibrazioaren intentsitatea doitzea

Telefonoaren pantaila ukitzen duzuneko bibrazioaren intentsitatea doitu dezakezu.

1. Modu inaktiboan, sakatu [▲/▼].
2. Hautatu **Vibración**, eta doitu bibrazioaren intentsitatea.

## Profil isilera aldatzea edo aukera horretatik irtetea

Modu inaktiboan, hautatu **Teclado**, eta, gero, luze sakatu **#**, telefonoa modu isilean jartzeko edo aukera horretatik irteteko.

## Dei-tonua aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ajustes** → **Perfiles del teléfono.**
2. Hautatu »; nahi duzun profilaren alboan ikusiko da.
3. Hautatu **Tono de llamada.**
4. Hautatu tonu bat zerrendan, eta, gero, **Guardar.**
5. Hautatu **Guardar.**

## Pantailaren atzealdea hautatzea (modu inaktiboa)

1. Menuen moduan, hautatu **Ajustes** → **Pantalla e iluminación** → **Fondo de pantalla.**
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, irudi batera.
3. Hautatu **Definir.**

## Telefonoa blokeatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ajustes** → **Seguridad.**
2. Hautatu **Activar, Bloqueo del teléfono** aukeran.
3. Sartu 4-8 digituko pasahitz berria eta sakatu **Confirmar.**
4. Sartu berriro pasahitz berria, eta hautatu **Confirmar.**

Pasahitza behar den menu batean lehen aldiz sartzean, pasahitz bat sortzeko eta berresteko eskatuko zaizu.

# Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea

Jakin ezazu deiek nola egin edo erantzun, eta deien oinarrizko funtzioak nola erabili.

Dei bat egiten ari zarenean, telefonoak automatikoki blokeatzen du ukitzeko pantaila, nahi gabe testurik ez sartzeko. Desblokeatzeko,sakatu blokeatzeko/desblokeatzeko tekla.

## Dei bat egitea

1. Modu inaktiboan, hautatu **Teclado** eta idatzi area-kodea eta telefono-zenbakia.
2. Sakatu . → **Llamada de voz** edo [ ], zenbakia markatzeko.
3. Deia amaitzeko, sakatu [ ].

## Dei bati erantzutea

1. Dei bat jasotzen duzunean, sakatu [ ].
2. Deia amaitzeko, sakatu [ ]

> Sarrerako deiak errefusa ditzakezu errefusatze automatikoaren bidez; menuan moduan, hautatu hau: **Ajustes** → **Aplicaciones** → **Llamar** → **Todas las llamadas** → **Rechazo automático** → **Activación** → **Activar.** Gero, konfiguratu errefusatze-zerrenda, eta hautatu zer zenbaki errefusatu behar diren.

## Bolumena doitzea

Hitz egiten ari zarenean bolumena doitzeko, sakatu [▲ / ▼].

## Bozgorailuaren funtzioa erabiltzea

1. Dei batean, sakatu **Altavoz** → **Sí** bozgorailua aktibatzeko.
2. Entzungailua berriro erabiltzeko, hautatu **Altavoz.**

> Zarata asko dagoen lekuetan, baliteke beste pertsonari ez entzutea bozgorailuaren funtzioarekin hitz egitean. Erabili telefonoaren modu arrunta audioak hobeto funtziona dezan.

## Entzungailuak erabiltzea

Telefonoarekin batera datozen entzungailuak erabilita, deiak egin eta erantzun ditzakezu:

- Azken zenbakiari berriro deitzeko, sakatu entzungailuen botoia, eta, gero, luze sakatu berriro.

- Dei bat erantzuteko, sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat amaitzeko, sakatu entzungailuen botoia.

## Mezuak jasotzea eta bistaratzea

Jakin ezazu nola bidali testu-mezuak (SMS), multimedia-mezuak (MMS) edo mezu elektronikoak.

### Testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Crear mensaje** → **Mensaje.**
2. Hautatu **Pulsar para añadir un destinat...** → **Introducir número.**
3. Sartu hartzaile-zenbaki bat, eta hautatu **Hecho.**
4. Hautatu **Pulsar para añadir texto.**
5. Idatzi testua eta sakatu **Hecho.** ▶ Testua idaztea

Mezua testu-mezu gisa bidali nahi baduzu, zoaz 7. pausora. Multimedia edukia erantsi nahi baduzu, jarraitu 6. pausoarekin.

6. Hautatu **Añadir element...,** eta gehitu elementu bat.
7. Hautatu **Enviar,** mezua bidaltzeko.

### Mezu elektronikoak bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Crear mensaje** → **Mensaje de correo.**
2. Hautatu **Pulsar para añadir un destinat...** → **Introducir dirección.**
3. Idatzi helbide elektroniko bat eta hautatu **Hecho**.
4. Hautatu **Pulsar para añadir asunto.**

5. Idatzi mezuaren gaia eta sakatu **Hecho**.
6. Hautatu **Pulsar para añadir texto.**
7. Idatzi mezu elektronikoaren testua, eta sakatu **Hecho**.
8. Hautatu **Añadir** →, elementu-mota bat, eta erantsi fitxategi bat (beharrezkoa bada).
9. Hautatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

## Testua idaztea

Telefonoaren ukipen-pantailarekin, testua sartu eta mezuak edo oharrak sor ditzakezu.

### Testua idazteko modua aldatzea

Testua idazteko eremu bat irekitzen duzunean, teklatu birtuala agertzen da. Hautatu **Teclado** goitibeherako menua, eta, gero, hautatu testua sartzeko metodo hauetako bat:

- **Teclado**
- **Pant compl escr.**
- **Cuadro escrit 1**
- **Cuadro escrit 2**

#### Testua teklatu birtualarekin sartzea

1. Aldatu testua idazteko modua; jarri **Teclado.**
2. Hautatu dagokion tekla birtuala, testua idazteko.
   - Maiuskuletatik minuskuletara igarotzeko edo zenbakiak edo sinboloak erabiltzeko, hautatu **Abc**.
   - Testua T9 moduan sartzeko, hautatu **T9**.

Testua idazteko modu hauek erabil ditzakezu:

| Modua | Funtzioa |
|---|---|
| ABC | Sakatu dagokion tekla birtuala, nahi duzun karakterea pantailan agertu arte. |
| T9 | 1. Sakatu hitz oso bat idazteko tekla birtualak.<br>2. Nahi duzun hitza pantailan ondo idatzita bistaratzen denean, sakatu ␣ tartea sartzeko. Pantailan hitz zuzena agertzen ez bada, hautatu zerrendako beste hitz bat. |
| Zenbakiak | Hautatu dagokion tekla birtuala, zenbakia idazteko. |
| Ikurrak | Hautatu dagokion tekla birtuala, ikur bat sartzeko. |

### Testua idaztea, eskuz idazteko pantaila osoarekin 1

1. Aldatu testua idazteko modua; jarri **Pant compl escr.**
2. Idatzi karaktereak pantailan nahi duzun tokian.

   Maiuskuletatik minuskuletara igarotzeko edo zenbakiak edo sinboloak erabiltzeko, hautatu **Abc**.

### Testua sartzea eskuz idazteko koadroarekin

1. Aldatu testua idazteko modua; jarri **Cuadro escrit 1.**
2. Idatzi karaktereak pantailaren behealdean dagoen idazteko eremuan.

   Idatzi zenbakiak eta ikurrak **?1** zutabean, idazteko eremuaren beheko eskuinaldean.

### Testua sartzea eskuz idazteko koadroarekin 2

1. Aldatu testua idazteko modua; jarri **Cuadro escrit 2.**
2. Idatzi karaktereak pantailaren behealdean dagoen idazteko eremuan.

   Maiuskuletatik minuskuletara igarotzeko edo zenbakiak edo sinboloak erabiltzeko, hautatu **Abc**.

## Testu-mezuak edo multimedia-mezuak bistaratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Buzón de entrada.**
2. Hautatu testu-mezu edo multimedia-mezu bat.

## Mezu elektroniko bat bistaratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Correo.**
2. Hautatu kontu bat.
3. Seleccione **Descargar.**
4. Hautatu mezu elektroniko bat edo goiburuko bat.
5. Goiburuko bat hautatu baduzu, sakatu **Recup** mezua ikusteko.

# Kontaktuak gehitzea eta bilatzea

Ikas itzazu Agenda funtzioa erabiltzeko oinarrizko alderdiak.

## Kontaktu berri bat gehitzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Teclado,** eta idatzi telefono-zenbakia.
2. Hautatu  → **Añadir a Agenda** → **Nuevo.**
3. Hautatu **Teléfono** edo **SIM.**
4. Idatzi kontaktuari dagokion informazioa.
5. Hautatu **Guardar** memorian kontaktu bat gehitzeko.

## Kontaktu bat bilatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Agenda.**
2. Hautatu bilaketa-eremua, idatzi bilatu nahi duzun izenaren lehen letrak, eta hautatu **Hecho.**

   Bestela, 3  arrastatu dezakezu, izenaren lehen letra hautatzeko.

3. Hautatu bilaketa-zerrendan nahi duzun kontaktuaren izena.

> Kontaktua aurkitzean, hau egin dezakezu:
> - Kontaktuari deitu, [ikonoa] hautatuta
> - Kontaktuaren informazio guztia editatu, **Editar** hautatuta

## Kameraren oinarrizko funtzioak erabiltzea

Eskuratu argazkiak ateratzeari eta bideoak grabatzeari buruzko oinarrizko alderdiei buruzko informazioa.

> Kamera piztean, baliteke pantaila zuri agertzea, une bateko deskarga elektrostatikoa dela eta. Arazoa konpontzeko, saiatu telefonoa berrabiarazten.

### Argazkiak ateratzea

1. Modu inaktiboan, sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Fokatu objektiboa kamerarekin eta egin beharrezko doikuntzak.
   - Irudiaren kolore-balantzea hautatzeko, hautatu AWB.
   - Argazki bat atera aurretik itxarongo duen denbora konfiguratzeko, sakatu [OFF].
   - Distira doitzeko, hautatu [ikonoa].
4. Argazkia ateratzeko, sakatu kameraren tekla.

   Argazkia automatikoki gordetzen da.

Argazkia atera ondoren, hautatu [▶] argazkiak azkar ikusteko.

## Argazkiak ikustea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Mis archivos** → **Imágenes** → **Mis fotos** → argazki-fitxategi bat.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
   - Joan gora eta behera argazkiak ikusteko.
   - Sakatu 🔍, 🔍 edo 🔍 irudia hurbiltzeko edo urruntzeko. Sakatu atzera egiteko funtzio-tekla zoomaren pantailatik irteteko.

## Bideoak grabatzea

1. Modu inaktiboan, sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Sakatu 📷 grabazio-modura aldatzeko.
4. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
   - Irudiaren kolore-balantzea hautatzeko, hautatu AWB.
   - Argazki bat atera aurretik itxarongo duen denbora konfiguratzeko, sakatu ⏲.
   - Distira doitzeko, hautatu ☑.
5. Sakatu kameraren tekla, grabatzen hasteko.
6. Sakatu ■ edo kameraren tekla grabazioa hasteko.

Bideoa automatikoki gordetzen da. Bideoak grabatu ondoren, hautatu ▶ bideoak azkar ikusteko.

## Bideoak ikustea

Modu inaktiboan, sakatu **Mis archivos** → **Vídeos** → **Videoclips** → bideo-fitxategi bat.

# Musika erreproduzitzea

Ikas ezazu musika-erreproduzitzailearekin edo FM irratiarekin musika entzuten.

## FM irratia erabiltzea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren funtzio ugariko hartunera.
2. Modu inaktiboan, hautatu **Aplicaciones** → **Radio FM.**
3. Hautatu **Sí** sintonizazio automatikoa hasteko.

   Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

FM irratira lehen aldiz sartzen zarenean, sintonizazio automatikoa hasteko eskatuko dizu.

4. Kontrolatu FM irratia ikono hauekin:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
|  | Telefonoa konfiguratzeko aukera ematen du, kateen maiztasunak aurrez sintonizatzeko |
|  | Soinuaren irteerako modua aldatzeko. |
|  | Irrati-kate bat sintonizatzeko eta gordetako irrati-kate bat hautatzeko aukera ematen du (luze sakatuta) |
|  | FM irratia martxan jartzeko balio du. |
|  | FM irratia itzaltzeko balio du. |

## Musika-fitxategiak erreproduzitzea

Lehenik eta behin, transferitu fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera:

- Deskargatu fitxategiak haririk gabeko saretik.▶36. or.
- Descargue los archivos de un PC con el programa opcional Samsung PC Studio.▶48. or.
- Jaso fitxategiak Bluetooth bidez.▶53. or.
- Kopiatu memoria-txartelean.▶48. or.
- Windows Media 11 erreproduzitzailearekin sinkronizatzea▶ 49. or.

Fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera transferitu ondoren:

1. Menuen moduan, sakatu **<Música → Reproductor de música.**
2. Hautatu musika-kategoria bat → musika-fitxategi bat.
3. Kontrolatu erreprodukzioa ikono hauekin:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
|  | Erreprodukzioa eteteko aukera ematen du. |
|  | Erreprodukzioa hasteko aukera ematen du. |
|  | Aurreko fitxategia erreproduzitzeko edo fitxategian bertan atzera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta). |
|  | Hurrengo fitxategia erreproduzitzeko edo fitxategian bertan aurrera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta). |
| NORM | Ekualizadore-mota bat hautatzeko aukera ematen du. |
|  | Errepikatzeko ateratzeko modua aldatzeko aukera ematen du. |
|  | Ausazko ordenaren modua aktibatzeko aukera ematen du. |

# Web-ean nabigatzea

Ikas ezazu zure web gune gogokoenetara sartzen eta zure gogokoenei gehitzen.

- Baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea Interneten sartu edo multimedia-edukia deskargatuz gero.
- Nabigatzailearen menuak izen bat edo beste bat izan dezake, zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Eskuragarri dauden jokoak aldatu egin daitezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Web-orrietan nabigatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Navegador** → **Inicio,** zure zerbitzu-hornitzailearen orri nagusia irekitzeko.
2. Nabigatu web-orrietan, ikono hauekin:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
|  | Web-orrietan aurrera edo atzera egiteko balio du |
|  | Uneko web orria eguneratzeko balio du. |
|  | Hasierako orrira itzultzeko balio du. |
|  | Gogokoen zerrenda irekitzeko balio du. |
|  | Ikuspegiaren modua aldatzeko balio du. |
|  | Nabigatzailearen aukera-zerrendara sartzeko balio du. |

## Zure gogoko webgunean gogokoenei gehitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Navegador** → **Favoritos.**
2. Hautatu **Añadir.**
3. Idatzi orriaren izenburua eta web-helbidea *(*URL*)*.
4. Hautatu **Guardar.**



# Funtzio aurreratuak erabiltzea

Eragiketa aurreratuak nola egin eta telefono mugikorraren ezaugarriak gehigarriak nola erabili.



## Deien funtzio aurreratuak erabiltzea

Jakin ezazu telefonoak zer dei-gaitasun dituen.

### Dei galduak ikustea eta markatzea

Telefonoko pantailan agertuko dira galdutako deiak. Galdutako dei baten zenbakia markatzeko:

1. Hautatu zer dei galdu markatu nahi duzun, ekitaldien oharren widgtet-etik.
2. Markatzeko, sakatu [ ].

## Orain dela gutxi markatutako zenbaki batera deitzea

1. Modu inaktiboan, sakatu [ ] azken zenbakien zerrenda ikusteko.
2. Joan markatu nahi duzun zenbakiraino eta sakatu edo [ ] markatzeko.

## Dei bat zain ipintzea eta zain dagoen dei bat berreskuratzea

Sakatu **Retener** dei bat zain uzteko edo **Recup** zain dagoen dei bat berreskuratzeko.

## Beste zenbaki bat markatzea (bigarrena)

Zure sareak funtzio hori onartzen badu, dei baten barruan beste zenbaki bat marka dezakezu:

1. Sakatu **Reten** lehen deia zain jartzeko.
2. Hautatu **Teclado**, sartu markatu nahi duzu bigarren zenbakia, eta hautatu **Llamada nueva**, edo sakatu [ ].
3. Sakatu **Cambiar**, dei batetik bestera igarotzeko.
4. Zain dagoen dei bat amaitzeko, hautatu **En espera** → .
5. Deia amaitzeko, sakatu [ ]

## Bigarren dei bati erantzutea

Zure sareak funtzio hori onartzen badu, sarrerako bigarren dei bat erantzun dezakezu:

1. Sakatu [ ] bigarren deiari erantzuteko. Lehen deia zain geratuko da automatikoki.
2. Sakatu **Cambiar**, dei batetik bestera igarotzeko.

## Dei anizkoitz bat egitea (multikonferentzia)

1. Deitu multikonferentzian sartu nahi duzu lehen pertsonari.
2. Lehen pertsonarekin konektatuta zaudenean, deitu bigarrenari.

Lehen pertsona zain geratuko da automatikoki.

3. Bigarren pertsonarekin konektatuta zaudela, hautatu **Unir**.
4. Eman berriro 2. eta 3. pausoak, solaskide gehiago eransteko (beharrezkoa bada).
5. Dei anizkoitza amaitzeko, sakatu [ ].

## Nazioarteko zenbaki batera deitzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Teclado** eta luze sakatu **0**, **+** karakterea sartzeko.
2. Idatzi markatu nahi duzun zenbaki osoa (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, sakatu → **Llamada de voz** edo sakatu [ ] markatzeko.

## Agenda erabilita kontaktu bati deitzea

**Agenda** erabilita, zenbakiak zuzenean marka ditzakezu (gordetako kontaktuenak). ▶ 31. or.

1. Menuen moduan, hautatu **Agenda**.
2. Hautatu nahi duzun kontaktua.
3. Hautatu , markatu nahi duzun zenbakiaren alboan → .

# Agendaren funtzio aurreratuak erabiltzea

Jakin ezazu nola sortu txartel pertsonalak, nola konfiguratu markaketa bizkorreko zenbakiak, eta nola sortu kontaktu-taldeak.

## Txartel pertsonal bat sortzea

1. Menuen moduan, sakatu **Agenda** → **Más** → **Mi tarjeta de visita.**
2. Idatzi zure datu pertsonalak.
3. Hautatu **Guardar.**

Zure bisita-txartela bidaltzeko, erantsi mezu bati edo mezu elektroniko bati, edo bidali Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez.

## Gogoko zenbakiak konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Agenda.**
2. Hautatu **Contactos** → **Favoritos** goitibeherako zerrenda.
3. Hautatu **Añadir.**
4. Hautatu kontaktu bat.

   Kontaktua gogoko zenbaki batekin gorde da.

Lehen bost gogoko zenbakiak ( ) widget-en tresna-barrako gogoko kontaktuei esleituko zaizkie.

## Kontaktu-talde bat sortzea

Kontaktu-talde bat sortzean, talde-izenak, tonuak, deia identifikatzeko irudiak eta hainbat bibrazio-mota eslei diezazkiekezu taldeei, eta mezuak eta mezu elektronikoak bidal diezazkiokezu talde osoari. Lehenengo, sortu taldea:

1. Menuen moduan, hautatu **Agenda.**
2. Hautatu **Contactos** → **Grupos** goitibeherako zerrenda.
3. Hautatu **Crear grupo.**
4. Esleitu talde-izen bat, deia identifikatzeko irudi bat, taldearen tonu bat eta bibrazio-mota bat.
5. Hautatu **Guardar.**

# Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea

Jakin ezazu nola sortu eta erabili mezu berriak sortzeko txantiloiak.

## Testu-txantiloi bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Plantillas** → **Plantillas de texto.**
2. Sakatu **Crear** txantiloi-leiho berri bat irekitzeko.
3. Sakatu testua idazteko eremua.
4. Idatzi testua eta sakatu **Hecho**.
5. Hautatu **Guardar.**

## Multimedia-txantiloi bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Plantillas** → **Plantillas multimedia.**
2. Sakatu **Crear** txantiloi-leiho berri bat irekitzeko.
3. Sortu multimedia-mezu bat, gaia jarrita eta nahi dituzun fitxategiak erantsita, txantiloi gisa erabiltzeko. ▶ 27. or.
4. Hautatu **Guardar.**

## Mezu berrietan testu-txantiloiak sartzea

1. Mezu berri bat egiten hasteko, menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Crear mensaje** → mezu-mota bat.
2. Sakatu **Más** → **Insertar** → **Plantilla de texto** → txantiloi bat**.**

## Multimedia-txantiloi batetik mezu bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Plantillas** → **Plantillas multimedia.**
2. Hautatu nahi duzun txantiloia.
3. Hautatu **Enviar.**

   Multimedia-mezu berri gisa irekiko da txantiloia.

## Mezuak administratzeko karpeta bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Mis carpetas.**
2. Hautatu **Crear carpeta.**
3. Sartu karpetaren izena, eta hautatu **Hecho.**

Mugitu mezuak sarrerako postontzitik karpetetara, zeuk nahi duzun bezala administratzeko.

# Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu argazkiak hainbat modutara ateratzen eta kameraren konfigurazioa pertsonalizatzen.

## Argazkiak ateratzea aurrez definitutako hainbat aukerarekin

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu SCN → egoera bat → OK.
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Argazkia ateratzeko, sakatu kameraren tekla.

## Argazki-segida bat ateratzea

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu [S] → [ ].
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Luze sakatu kameraren tekla, argazki-segida bat ateratzeko.

## Argazki panoramikoak ateratzea

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu [S] → [ ].
4. Egin beharrezko doikuntzak.

5. Lehen argazkia ateratzeko, sakatu kameraren tekla.
6. Mugitu mantso telefonoa edozein aldetara. Telefonoak automatikoki aterako du hurrengo argazkia.
7. Errepikatu 6. pausoa argazki panoramikoa osatzeko.

## Argazkiak ateratzea Sonrisa moduan

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu [S] → .
4. Sakatu kameraren tekla.
5. Fokatu nahi duzuna kameraren lentearekin. Telefonoak pertsonak ezagutzen ditu irudian, eta irribarreak detektatzen ditu. Pertsonak irribarre egiten duenean, telefonoak argazki bat ateratzen du automatikoki.

## Argazki banatuak ateratzea

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu [S] → .
4. Hautatu irudiaren diseinua.
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Sakatu kameraren tekla segmentu bakoitzeko argazkiak ateratzeko.

## Argazkiak ateratzea marko apaingarriekin

1. Luze sakatu kameraren tekla, kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu [S] → [icon].
4. Hautatu marko bat.
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Argazkia markoarekin ateratzeko, sakatu kameraren tekla.

## Kameraren aukeren erabilera

Argazki bat atera aurretik, hautatu [icon] aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Resolución | Bereizmena aldatzeko balio du |
| Efectos | Efektu bereziak emateko balio du |
| Medición expos | Esposizioaren neurketa-mota aukeratzeko balio du. |
| Calidad de imagen | Zure irudi digitalen kalitatea doitzeko balio du |

Bideo bat grabatu aurretik, hautatu ⚙ aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
| --- | --- |
| Resolución | Bereizmena aldatzeko balio du |
| Efectos | Efektu bereziak emateko balio du |
| Calidad de vídeo | Bideoen kalitatea doitzeko balio du |

## Kameraren konfigurazioa pertsonalizatzea

Hautatu ⚙ → ⚙, aukera hauetara sartzeko:

| Konfigurazioa | Funtzioa |
| --- | --- |
| Instrucciones | Jarraibideak ikusteko balio du |
| Revisar | Kamera, argazki bat atera ondoren, aurrebistako pantailara igaro dadin doitzeko balio du. |
| Sonido de obturador | Obturadorea sakatzean zer soinu egingo duen hautatzeko balio du. |
| Grabación de audio | Audioa aktibatzeko edo desaktibatzeko balio du. |
| Almacenamiento | Irudi edo bideo berriak gordetzeko memoriako leku bat hautatzeko balio du. |

# Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu musika-fitxategiak prestatzen, erreprodukzio-zerrendak sortzen eta irrati-kateak gordetzen.

## Musika-fitxategiak kopiatzea Samsung PC Studio erabilita

1. Menuen moduan, sakatu **Ajustes** → **Teléfono** → **Conexiones de PC** → **Samsung PC studio** → **Guardar.**
2. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea ordenagailura.
3. Exekutatu Samsung PC Studio programa, eta kopiatu PCko fitxategiak telefonora. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung PC Studio-ren laguntza.

## Musika-fitxategiak kopiatzea memoria-txartel batean

1. Sartu memoria-txartel bat.
2. Menuen moduan, sakatu **Ajustes Teléfono** → **Conexiones de PC** → **Almacenamiento masivo** → **Guardar.**
3. Sakatu [ ] bi aldiz modu inaktibora itzultzeko.
4. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea ordenagailura.

   Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
5. Ireki karpeta fitxategiak ikusteko.
6. Kopiatu PCko fitxategiak memoria-txartelean.

## Zure telefonoa Windows Media-ren erreproduzitzailearekin sinkronizatzea

1. Sartu memoria-txartel bat.
2. Menuen moduan, sakatu **Ajustes** → **Teléfono** → **Conexiones de PC** → **Reproductor multimedia** → **Guardar**.
3. Sakatu [ ] bi aldiz modu inaktibora itzultzeko.
4. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea Windows Media Player instalatuta duen PC batera.

   Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
5. Ireki Windows Media Player, musika-fitxategiak sinkronizatzeko.
6. Editatu edo idatzi zure telefonoaren izena bistaratuko den leihoan (beharrezkoa bada).
7. Hautatu nahi dituzun musika-fitxategiak eta arrastatu sinkronizazio-zerrendara.
8. Hasi sinkronizatzen.

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Menuen moduan, sakatu **Música** → **Reproductor de música** → **Listas de reproducción**.
2. Hautatu **Crear**.
3. Sakatu testua idazteko eremua.
4. Idatzi izen bat erreprodukzio-zerrendarentzat, eta hautatu **Hecho**.
5. Erreprodukzio-zerrenda bati irudi bat esleitzeko, hautatu **Pulse para editar**, eta, gero, hautatu irudi bat edo atera beste argazki bat.
6. Hautatu **Guardar**.

7. Hautatu erreprodukzio-zerrenda berri bat.
8. Hautatu **Añadir** → **Pistas.**
9. Hautatu nahi dituzun programak, eta gero, hautatu **Añadir**.

## Musika-erreproduzitzailearen konfigurazioa pertsonalizatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Música** → **Reproductor de música**.
2. Hautatu **Ajustes.**
3. Doitu konfigurazioa musika-erreproduzitzailea pertsonalizatzeko.

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Reproducción en segundo plano | Musika-erreproduzitzailea ixtean atzealdeko musika jo dezan konfiguratzeko balio du |
| Menú de música | Musika-liburutegiaren pantailan ikusiko dituzun musika-kategoriak hautatzeko balio du |

4. Hautatu **Guardar.**

## Irrati-kateak automatikoki gordetzea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren funtzio ugariko hartunera.
2. Modu inaktiboan, hautatu **Aplicaciones** → **Radio FM.**
3. Hautatu **Más** → **Sintonización automática.**
4. Sakatu **Sí** berresteko (beharrezkoa bada).

   Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

## Musikari buruzko informazioa bilatzea

Ikas ezazu sareko musika-zerbitzu batera sartzen, eta, bidaiatzen ari zarela, entzuten ari zaren abestiei buruzko informazioa bilatzen.

1. Menuen moduan, sakatu **Música** → **Buscar música**.
2. Hautatu **Buscar música** zerbitzarira konektatzeko.
3. Telefonoa behar bezala erregistratuta dagoenean, hautatu ◉ bilatu nahi duzun musikaren zati bat grabatzeko.

Baliteke zerbitzu-hornitzaile batzuek zerbitzu hori ez ematea eta datu-basean ez egotea abesti guztiei buruzko informazioa.



# Tresnak eta aplikazioak erabiltzea

Jakin ezazu nola erabili zure mugikorraren tresna eta aplikazio gehigarriak.



## Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea

Lortu informazioa telefonoak datuak trukatu eta esku libreko funtzioak erabili ahal izateko haririk gabeko beste gailu batzuekin konektatzeko duen gaitasunari buruz.

### Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Bluetooth.**
2. Hautatu erdiko zirkulua, Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzeko.

3. Beste gailuei telefonoa bilatzeko aukera emateko, hautatu **Ajustes** → **Activar** en **Visibilidad de mi teléfono** → ikusteko aukera bat → **Guardar** → **Guardar. Personalizado** hautatu baduzu, ezarri zenbat denboran nahi duzun zure telefonoa ikusteko moduan egotea.

## Bluetooth teknologia duten beste gailu batzuk bilatzea eta haiekin konektatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Bluetooth** → **Buscar**.
2. Hautatu gailuaren ikonoa, eta arrastatu erdira.
3. Idatzi PIN bat Bluetooth haririk gabeko funtziorako, edo, bestela beste gailuaren Bluetooth PINa, baldin badauka, eta hautatu **Hecho**.

   Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira.

Gailuaren arabera, baliteke PINik behar ez izatea.

## Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak bidaltzea

1. Hautatu bidali nahi duzun fitxategia edo elementua zure telefonoaren aplikazioetatik.
2. Hautatu **Enviar mediante** edo **Enviar URL mediante** → **Bluetooth**

## Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak jasotzea

1. Idatzi Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa eta sakatu **OK** (beharrezkoa bada).
2. Hautatu **Sí** gailuaren datuak jaso nahi dituzula berresteko (beharrezkoa bada).

## Urruneko SIM modua erabiltzea

Urruneko SIM moduan, ibilgailuetarako esku libreko Bluetooth kitarekin soilik egin edo erantzun ditzakezu deiak, telefonoaren SIM txartelaren bidez.

Urruneko SIM modua aktibatzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Bluetooth** → **Ajustes.**
2. **Modo SIM remotan**, hautatu **Activar.**
3. Hautatu **Guardar.**

Urruneko SIM modua erabiltzeko, hasi Bluetooth konexioa autorako esku libreko Bluetooth kit bat erabilita.

Ibilgailurako baimendutako Bluetooth esku libreko ekipo bat erabili beharko duzu. Baimentzeko, hautatu gailua, eta, gero, hautatu **Autorizar dispositivo.**

# Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea

Larrialdi bat duzunean, laguntza eskatzeko mezu bat bidali ahal izango duzu.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Menuen moduan, hautatu **Mensaje** → **Mensajes de emergencia** → **Ajustes de envío.**
2. Hautatu **Activar, Mensajes de emergencia** funtzioa aktibatzeko.
3. Hautatu hartzailearen eremua, hartzaile-zerrenda irekitzeko.
4. Hautatu **Contactos,** kontaktuen zerrenda irekitzeko.

5. Hautatu erantsi nahi duzun kontaktua, eta hautatu **Añadir.**
6. Hautatu telefono-zenbaki bat (beharrezkoa bada).
7. Hautatu **OK**, hartzaileak gordetzeko.
8. Hautatu **Una vez** goitibeherako menua, eta jarri zenbat aldiz errepikatu nahi duzun larrialdi-mezua.
9. Sakatu Guardar → **Sí**. Larrialdi-mezu bat bidaltzeko, teklak eta ukipen-pantaila blokeatu behar dira. Sakatu ( ▲/▼ ) lau aldiz.

Larrialdi-mezua bidali ondoren, telefonoaren funtzio guztiak eten egingo dira, blokeatzeko tekla sakatu arte.

## Mugikor-bilatzailea aktibatzea

Norbaitek telefonoan SIM txartel berri bat sartzen duenean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die bi hartzaileri, telefonoa kokatu eta berreskuratu ahal izateko. Mugikor-bilatzailea aktibatzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Configuración** → **Seguridad** → **Rastreador de móviles.**
2. Sartu pasahitza eta hautatu **Confirmar**.
3. Hautatu **Activar**, mugikorren bilatzailea pizteko.
4. Hautatu hartzailearen eremua, hartzaile-zerrenda irekitzeko.

5. Aukeratu hartzailearen sarrera-eremua
6. Sartu hartzaile-zenbaki bat, eta hautatu **Hecho**.
7. Hautatu **OK**, hartzaileak gordetzeko.
8. Aukeratu hartzailearen sarrera-eremua
9. Idatzi hartzailearen izena eta sakatu **Hecho**.
10. Hautatu **Guardar** → **Aceptar**.

## Gezurrezko deiak egitea

Telefono-deiak jasotzen dituzun itxura egin dezakezu elkarrizketa deseroso batetik edo bilera batetik ihes egin nahi duzunean. Telefonoz hitz egiten ari zaren itxurak ere egin ditzakezu, aurrez grabatutako ahotsa erreproduzituta.

### Ahots-grabazioa

1. Menuen moduan, hautatu **Ajustes Aplicaciones** → **Llamar** → **Llamada fingida** → **Voz de llamada fingida**.
2. **Voz de llamada fingida** aukeran, hautatu **Activar**.
3. Hautatu **Grabación de voz**.
4. Hautatu ● grabazioa hasteko.
5. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
6. Amaitzean, hautatu ■.
7. Sakatu **Atrás** funtzio-tekla.
8. Hautatu **Guardar**.

### Gezurrezko dei bat egitea

Gezurrezko dei bat egiteko, luze sakatu [ ▾ ], modu inaktiboan.

Gezurrezko dei baten itxaroteko denbora aldatzeko, menuen moduan, hautatu **Configuración** → **Aplicaciones** → **Llamar** → **Llamada fingida** → **Temporizador de llamada falsa** → aukera bat → **Guardar.**

# Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea

Telefonoaren ahots-grabagailua nola erabili.

## Ahots-ohar bat grabatzea

1. Menuen moduan, sakatu **Aplicaciones** → **Grabador de voz**.
2. Sakatu grabazioa hasteko.
3. Esan oharrean jartzen duena mikrofonoan.
4. Amaitzean, hautatu .
   Oharra automatikoki gordeko da.

## Ahots-ohar bat erreproduzitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mis archivos** → **Sonidos** → **Mis archivos de voz.**
2. Hautatu fitxategi bat.
3. Kontrolatu erreprodukzioa ikono hauekin:

| Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|
| | Erreprodukzioa eteteko aukera ematen du. |
| | Erreprodukzioa abiatzen edo berrabiarazten du. |
| | Fitxategian bertan atzera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta) |
| | Fitxategian bertan aurrera egiteko aukera ematen du (luze sakatuta) |

# Irudiak editatzea

Irudiak nola editatu eta nola gehitu efektu dibertigarriak.

## Irudiei efektuak gehitzea

1. Menuen moduan, sakatu **Mis archivos** → **Imágenes** → **Mis fotos** → irudi-fitxategi bat.
2. Hautatu .
3. Hautatu **Editar** → **Efectos** → efektu-aukera bat (iragazkia, estiloa, deformatzea edo zati bat lausotzea).
4. Hautatu efektu-aukera bat, eta, gero, **Realiz.**

   Irudiaren eremu zehatz bat lausotzeko, mugitu edo doitu laukizuzenaren neurria, eta hautatu **Borroso parcial** → **Realiz.**
5. Efektuak ezartzen amaitzean, hautatu **Archivos** → **Guardar como.**
6. Hautatu memoriako kokaleku bat (beharrezkoa bada).
7. Idatzi fitxategi-izen bat irudiarentzat, eta hautatu **Hecho.**

## Irudi bat doitzea

1. Ireki editatu nahi duzun irudia. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 1. eta 2. pausoei.
2. Hautatu **Editar** → **Ajustar** → doitzeko aukera bat (argitasuna, kontrastea edo kolorea).

   Irudia automatikoki doitzeko, hautatu **Nivelado automático.**
3. Doitu irudia nahi duzun bezala, eta hautatu **Realiz.**
4. Gorde aldatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 5-7. pausoei.

## Irudi bat aldatzea

1. Ireki editatu nahi duzun irudia. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 1. eta 2. pausoei.
2. Hautatu **Editar** → **Transformar** → **Cambiar tamaño, Rotar,** edo **Voltear**.
3. Biratu irudia nahi duzu bezala, eta hautatu **Realiz.**

   Irudi baten neurria doitzeko, hautatu neurri bat, eta, gero, **Guardar** → **Realiz.**
4. Gorde aldatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 5-7. pausoei.

## Irudi bat moztea

1. Ireki editatu nahi duzun irudia. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 1. eta 2. pausoei.
2. Hautatu **Editar** → **Recortar**.
3. Marraztu laukizuzen bat moztu nahi duzun eremuan, eta hautatu **Recortar** → **Realiz.**
4. Gorde aldatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 5-7. pausoei.

## Ikuste-ezaugarriak sartzea

1. Ireki editatu nahi duzun irudia. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 1. eta 2. pausoei.
2. Hautatu **Editar** → **Insertar** → ikuste-ezaugarri bat (markoa, irudia, clipart-a, aurpegiera edo testua).

3. Hautatu ikuste-ezaugarri bat edo sartu testua, eta hautatu **Realiz.**
4. Mugitu edo aldatu ikuste-ezaugarriaren neurria, eta hautatu **Realiz.**
5. Gorde aldatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 5-7. pausoei.

## Eskuz idatzitako ohar bat egitea

1. Ireki editatu nahi duzun irudia. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 1. eta 2. pausoei.
2. Hautatu **Editar** → **Pintar en la pantalla**.
3. Hautatu kolore bat, idatzi oharra pantailan, eta, gero, hautatu **Realiz.**
4. Gorde aldatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Jarraitu “Irudiei efektuak aplikatzea” ataleko 5-7. pausoei.

# Irudiak inprimatzea

Ikasi irudiak inprimatzen, USB konexio batekin edo Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez.

Irudi bat USB konexio baten bidez inprimatzeko:

1. Konektatu telefonoaren funtzio ugariko hartunea inprimagailu bateragarri batekin.
2. Ireki irudi bat.▶33. or.
3. Hautatu **Más** → **Imprimir por** → **USB.**
4. Konfiguratu inprimatzeko aukerak eta inprimatu irudia.

Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez irudi bat inprimatzeko:

1. Ireki irudi bat.▶33. or.
2. Hautatu **Más** → **Imprimir por** → **Bluetooth.**
3. Hautatu Bluetooth teknologia duen inprimagailu bat, eta konektatu telefonoari.▶53. or.
4. Konfiguratu inprimatzeko aukerak eta inprimatu irudia.

## Web-era argazkiak eta bideoak kargatzea

Ikas ezazu zure argazkiak eta bideoak blog-etan eta argazkiak partekatzeko web guneetan argitaratzen.

Baliteke Communities erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### Gogoko helburuen zerrenda konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Share Pix.**
2. Hautatu **Sí**, gogoko helburuen zerrenda konfiguratzeko (beharrezkoa bada).

3. Hautatu **Aceptar**, erantzukizunik ezaren oharra onartzen duzula berresteko.

**Share Pix**-era sartzen zaren lehen aldian, berresteko eskatuko dizu.

4. Hautatu zer helburu gehitu nahi dituzun, eta, gero, **Guardar**.

**Act listas** hautatu baduzu, helburuko gune berriak automatikoki gehituko dira zerrendara.

Gogoko helburuen zerrenda aldatzeko edo eguneratzeko, Communities pantailan, hautatu **Config** → **Listas preferidas** → **Editar**.

## Fitxategi bat kargatzea

Sarean argazkiak eta bideoak kargatzeko, argazkiak edo argitalpenak partekatzeko konturen bat eduki behar duzu.

1. Menuen moduan, hautatu **Share Pix.**
2. Hautatu argitaratu nahi duzun helburuko lekua.
3. Idatzi helburuko zure erabiltzaile-izena eta pasahitza.
4. Hautatu **Toque para añadir**, eta, gero, hautatu multimedia-fitxategi bat.
5. Jarri argitalpenaren xehetasunak, eta hautatu **Cargar.**

Hauetatik ere karga ditzakezu multimedia-fitxategiak: **Cámara** edo **Mis archivos,** **Cargado en la web**

# Java-rako aplikazioak eta jokoak erabiltzea

Jakin ezazu Java teknologia saritua duten jokoak eta aplikazioak nola erabili.

Baliteke Java fitxategiak deskargatzea ez izatea bateragarria telefonoaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Jokoak eta aplikazioak deskargatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Juegos y más** → **Descarga juegos.**

   Zerbitzu-hornitzaileak aurrez definitutako webgunera konektatzen da telefonoa.

2. Bilatu aplikazio bat edo joko bat, eta deskargatu telefonora.

## Jokoak erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Juegos y más.**
2. Hautatu joko bat zerrendan eta segitu pantailako jarraibideei.

Joko batzuk edo beste batzuk egon daitezke eskuragarri, lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera. Jokoaren kontrolak eta aukerak aldatu egin daitezke.

## Aplikazioak abiaraztea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Juegos y más** → aplikazio bat.
2. Hautatu **Más**, aplikazioaren aukeretara eta konfigurazioetara sartzeko.

# Datuak sinkronizatzea

Ikas ezazu zehaztutako web-zerbitzariarekin kontaktuak, egutegiko gertaerak, zereginak eta oharrak sinkronizatzen.

## Sinkronizazio-profil bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Sincronizar.**
2. Hautatu **Añadir**, eta zehaztu profilaren parametroak.
3. Amaitutakoan, aukeratu **Guardar**.

## Sinkronizazioa hastea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Sincronizar.**
2. Hautatu sinkronizazio-profil bat.
3. Hautatu **Continuar**, zehaztutako web-zerbitzariarekin sinkronizazioa hasteko.

# RSS irakurgailua erabiltzea

Ikas ezazu RSS irakurgailua erabiltzen gogokoen dituzun web guneetako azken berriak eta informaziorik berriena eskuratzeko.

## RSS iturri baten helbidea gehitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Lector RSS.**
2. Hautatu **Añadir.**
3. Sakatu URL sartzeko eremua.
4. Idatzi RSS iturri baten helbidea eta sakatu **OK**.

## RSS iturriak irakurtzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Lector RSS**.
2. Hautatu **Actualizar**, azken edukiak eskuratzeko.
3. Hautatu iturri-kategoria bat → iturri bat.

Eguneratze automatikoen funtzioak telefonoa konfiguratzen du RSS iturria automatikoki eguneratzeko zehaztutako denbora-tartean. Eguneratze automatikoko funtzioa aktiba dezakezu **Lector RSS** → **Más** → **Ajustes Preferencias** hautatuta.

# Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea

Ikas ezazu beste lurralde bateko ordua ikusten, eta konfiguratu munduko erlojuak pantailan ager daitezen.

## Munduko erloju bat ikustea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Organizador** → **Reloj mundial**.
2. Munduko mapan, hautatu nahi duzun ordu-eremua.

## Munduko erloju bat sortzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Organizador** → **Reloj mundial**.
2. Hautatu  → **Añadir**.

3. Hautatu ordu-eremu bat.
4. Udako ordua konfiguratzeko, hautatu .
5. Sakatu **OK** munduko erlojua gordetzeko. Munduko erlojua bigarren erloju gisa konfiguratua dago.
6. Hautatu **Añadir** munduko erloju gehiago gehitzeko (3. pausoa).

## Pantailan munduko erloju bat gehitzea

Erloju dualaren widget-arekin, zure pantailan bi ordu-eremutako erlojuak ikus ditzakezu.

Munduko erloju bat sortu ondoren:

1. Modu inaktiboan, sakatu **Organizador** → **Reloj mundial**.
2. Hautatu **Configurar como segundo reloj.**
3. Hautatu gehitu nahi duzun munduko erlojua.
4. Hautatu **Definir.**

# Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea

Jakin ezazu nola konfiguratu eta kontrolatu gertaera garrantzitsuetarako alarmak.

## Alarma berri bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmas.**
2. Hautatu **Crear alarma.**
3. Definitu alarmaren informazioa.
4. Hautatu **Guardar.**

Automatikoki pizteko funtzioak automatikoki aktibatzen du telefonoa, eta ezarritako orduan alarma joarazten du telefonoa itzalita badago.

## Alarma gelditzea

Alarmak jotzean:

- Lerratu kontrolagailua **Parar** aukerara arte alarma bat gelditu eta berriro jotzerik nahi ez baduzu.
- Lerratu kontrolagailua **Parar** aukerara arte, alarma gelditu baina berriro jo dezan, edo lerratu kontrolagailua **Retrasar** aukerara arte, errepikatzeko garaian alarmak jo ez dezan.

## Alarma bat desaktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmas.**
2. Hautatu **Des...**, aktibatu nahi duzun alarmaren alboan.

# Kalkulagailua erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Calculadora.**
2. Erabili pantailako kalkulagailuaren teklak oinarrizko matematika-eragiketak egiteko.

# Dibisak edo neurriak aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Conversor** → bihurketa-mota bat.
2. Idatzi dibisak edo neurriak eta unitateak dagozkien eremuetan.

## Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Temporizador**.
2. Idatzi atzerakontuaren orduak edo minutuak.
3. Sakatu **Iniciar** atzerako kontaketa martxan jartzeko.
4. Kontatzen amaitzean, sakatu **Parar**, alerta geldiarazteko.

## Kronometroa erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplicaciones** → **Cronómetro**.
2. Sakatu **Iniciar** kronometroa martxan jartzeko.
3. Hautatu **Vuelta**, itzulien denborak grabatzeko.
4. Amaitzean, hautatu **Parar**.
5. Hautatu **Rest**, grabatutako denborak ezabatzeko.

## Zeregin berria sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Tarea**.
2. Hautatu **Crear tarea**.
3. Idatzi zereginaren xehetasunak eta hautatu **Guardar**.

## Testu-ohar bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Notas**.
2. Hautatu **Crear nota**.
3. Idatzi oharraren testua eta sakatu **Hecho**.

# Egutegia antolatzea

Jakin ezazu nola aldatu egutegiaren ikuspuntua eta ekitaldiak nola sortu.

## Egutegiaren ikuspegia aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Calendario.**
2. Hautatu **Más** → **Ver por día o Vista por semana.**

## Ekitaldi bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Calendario.**
2. Hautatu **Crear horario.**
3. Idatzi ekitaldiari buruzko xehetasunak, beharrezkoa dena.
4. Hautatu **Guardar.**

## Ekitaldiak bistaratzea

Data zehatz bateko ekitaldiak ikusteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Calendario.**
2. Hautatu data bat egutegian.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

Ekitaldiak motaren arabera ikusteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Organizador** → **Calendario.**
2. Hautatu Lista de horarios.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

# Arazoen konponketa

Zure telefono mugikorrarekin arazoren bat baduzu, egiaztatu arazoak konpontzeko prozedura hauek zerbitzuaren profesional batekin harremanetan jarri aurretik.

## Telefonoa erabiltzean, mezu hauek ager daitezke:

| Mezua | Saiatu hau egiten arazoa konpontzeko |
|---|---|
| Insertar tarjeta SIM para acceder a los servicios de red | Egiaztatu SIM txartela behar bezala jarrita dagoela. |
| Bloqueo del teléfono | Blokeo-funtzioa gaituta baldin badago, telefonoaren pasahitza sartu behar duzu. |
| Código PIN | Telefonoa lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hau desaktibatzeko, erabili **Bloqueo de PIN** menua. |

| Mezua | Saiatu hau egiten arazoa konpontzeko |
|---|---|
| PIN2 | PIN2 eskatzen dizun menu batera sartzeko, SIM txartelak ekarritako PIN2 kodea sartu behar duzu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |

## Telefonoan “Servicio no disponible” edo “Error de red” agertzen da.

- Harrera gal dezakezu seinale ahula edo harrera gutxi dagoen lekuetan. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Harpidetzarik gabe ezin duzu zenbait aukeratara sartu. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, xehetasun gehiago eskatzeko.

## Zenbakia idatzi duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Egiaztatu markaketa-tekla [ ] sakatu duzula.
- Ziurtatu telefonia mugikorreko sare egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu zenbaki horretarako deiak ez dituzula mugatu.

## Deitu dizun pertsonak ezin du zurekin harremanetan jarri.

- Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
- Ziurtatu telefonia mugikorreko sare egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu zenbaki horretarako deiak ez dituzula mugatu.

## Deitzen duen pertsonak ez zaitu entzuten

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailua erabiltzen baduzu, ziurtatu behar bezala konektatuta dagoela.

## Telefonoak soinua egiten du, eta bateriaren ikonoa keinuka ari da.

Bateria gutxi du. Kargatu edo ordeztu bateria telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

## Deiaren audio-kalitatea ez da ona.

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen telefonoaren barneko antena.
- Harrera gal dezakezu seinale ahula edo harrera gutxi dagoen lekuetan. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

## Deitzeko kontaktu bat hautatu duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Idatzi eta gorde berriro zenbakia, beharrezkoa bada.

## Bateria ez da behar bezala kargatzen edo, batzuetan, telefonoa itzali egiten da.

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osorik kargatzen ez bada, bota, eta jarri beste bat.

## Telefonoa beroa dago.

Hainbat aplikazio batera erabiltzean, telefonoak energia gehiago behar du, eta, berotu egin daiteke.

Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

# Aurkibidea


ahots-oharrak
- argazkiak ateratzeko oinarrizko funtzioak 57
- erreprodukzioa 57

alarmak
- sortu 66
- desaktibatu 67
- gelditu 67

argazkiak
- argazkiak ateratzeko funtzio aurreratuak 44
- edizioa 58

argazkiak
- argazkiak ateratzeko oinarrizko funtzioak 32
- bistaratu 33

bateria
- kargatu 18
- bateria baxuaren adierazlea 18
- instalazioa 16

bideoak
- argazkiak ateratzeko oinarrizko funtzioak 33
- bistaratu 33

bihurgailua
- ikus tresnak, bihurgailua

blokeoa ikus telefonoa blokeatu

Bluetootha
- aktibatu 52
- datuak bidali 53
- urruneko SIM modua 54
- datuak jaso 53

bolumena
- deiaren bolumena 26
- teklen tonuen bolumena 23

deiak
- aurkibidea erabilita 40
- funtzio aurreratuak 38
- oinarrizko funtzioak 25

deia zain 39
deiak markatzeko aukera gehigarriak 39
galdutako deiak markatu 38
azkena markatutakoak 39
multikonferentzia 40
nazioarteko zenbakiak 40
gezurrezko deiak egin 56
egin 25
zain dauden deiak berreskuratu 39
deiei erantzuteko aukera gehigarriak 39
erantzun 26
galdutako deiak bistaratu 38

egutegia
ikus tresnak, egutegia

entzungailua 26

erlojua
ikus munduko erlojua

FM irratia
irrati-kateak gorde 50
erabilera 34

gezurrezko deiak
ikus deiak, gezurrezko deiak egin

Internet
web nabigatzailea kontsultatu

irratia
ikus FM irratia

irudiak
oharrak gehitu 60
doikuntza 58
efektuak aplikatu 58
inprimatu 60
ikuste-ezaugarriak sartu 59
ebaki 59
aldatu 59

Java
aplikazioetarako sarbidea 63
deskargatu 63
jokoak abiarazi 63

kalkulagailua
ikus tresnak, kalkulagailua

konexiorik gabeko profila 20

konferentzia-deiak
ikus deiak, multikonferentzia

kontaktuak
gehitu 31
bilatu 31

taldeak sortu 42

kronometroa
ikus tresnak, kronometroa

larrialdi-mezuak 54

memoria-txartela 19

mezuak
mezu elektronikoak bidali 27
testu-mezuak bidali 27
multimedia-mezuak bidali 27
mezu elektronikoak bistaratu 31
multimedia bistaratu 30
testua bistaratu 30

mugikor-bilatzailea 55

multimedia
ikus mezuak

munduko erlojua
pantaila duala konfiguratu 66
sortu 65
bistaratu 65

musika-bilaketa 51

musika-erreproduzitzailea
erreprodukzio-zerrendak sortu 49
pertsonalizazioa 50
musika erreproduzitu 35
sinkronizazioa 49

nabigatzailea
ikus web-nabigatzailea

oharrak
ikus testua edo ahots-oharrak

pantailaren hondoa 24

profil isila 24

RSS irakurgailua
ikus tresnak, RSS irakurgailua

Share Pix
ikus tresnak, blog mugikorra

SIM txartela 16

Sinkronizazioa
hasiera 64
profil bat sortu 64

teklen tonua 23

telefonoa blokeatu 25

tenporizadorea
ikus tresnak, tenporizadorea

testua
oharrak sortu 68
testua idatzi 28
mezuak 27

tresnak
alarma 66
blog mugikorra 61
kalkulagailua 67
egutegia 69
bihurgailua 67
kronometroa 68
irudi-editorea 58
RSS irakurgailua 64
zeregina 68
tenporizadorea 68

txantiloiak
sartu 43
multimedia 43
testua 42

txartel pertsonala 41

txirrina 24

web-nabigatzailea
gogokoetara gehitu 37
hasierako orria ireki 36

widget-ak 22

Windows Media-ren erreproduzitzailea 49

SAMSUNG
ELECTRONICS

# Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

**Guk,** Samsung Electronics enpresak, gure erantzukizunaren pean aitortzen dugu

## GSM : S5230 telefono mugikorrak

(hain zuzen ere, mugikor horri dagokio deklarazio hau) estandar hauek eta beste arautegi batzuk betetzen dituela:

EMC

SAR

RED

SEGURTASUNA

Honen bidez deklaratzen da [oinarrizko irrati-probak egin direla eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarrizko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, BalfourHouse, Churchfield Road,
Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, UK*
Marca de identificación: 0168

Dokumentazio teknikoa hemen dago:

CE0168

Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.(EBn duen ordezkaria)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK*

Yong-Sang Park / S.

(igorpen-lekua eta -data) (pertsona baimendunaren izena eta sinadura)

* Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.

euskaltel

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008